

**Eskualde Hizkuntzen edo  
Hizkuntza Gutxituen Europako  
Gutunari buruzko eztabaida  
foroa**

**Consello da Cultura Galega**  
Santiago de Compostela,  
2017ko ekainaren 29-30a





## Eskualde Hizkuntzen edo Hizkuntza Gutxituen Europako Gutunari buruzko eztabaida foroa

Consello da Cultura Galega

Santiago de Compostela, 2017ko ekainaren 29-30a

### Ondorio nagusiak

---

1. *Eskualde Hizkuntzen edo Hizkuntza Gutxituen Europako Gutunak* (aurrerantzean, Gutuna), eskualde hizkuntzak edo hizkuntza gutxituak babesteko eta sustatzeko nazioarteko hitzarmena den heinean, zabalpen sozial handiagoa behar du, eta, era berean, erakunde mailako aitorten handiagoa.
2. Lehen aldiz, estatuko erkidegoetan hitz egiten diren hizkuntza (ofizialak eta ofizialak ez direnak) guztietako ordezkariak elkartu ziren Santiago de Compostelan, Espainiako gobernuak izenpetutako konpromisoak betetzeari dagokionez bakoitzak duen egoera aztertzeko.
3. Adituen Batzordeak igorritako azken txostena (2010-2013) eta Europako Kontseiluaren Ministro Batzordearen gomendioak aintzat hartuta, Foroan hitzunen komunitateek eguneroko bizitzan hautematen dituzten aurrerapenak, geldialdiak eta atzerakadak jorratu dituzte.
4. Ofizialak ez diren hizkuntzei dagokionez –amazigera, Ceutako arabiera, aragoiera, asturiera, kaloa, katalana (Aragoi eta Murtzia), fala (Extremadura), galegoa (Asturias eta Gaztela eta Leon), leonera eta portugesa (Extremadura) eta euskara ofiziala ez den Nafarroako eremuetan–:
  - a. Ondo egituratutako hizkuntza politikatik abiatuta, babesteko eta sustatzeko muturreko beharra dagoela egiaztatu da. Hizkuntz politika horretan ofizialtasuna ezartzea jaso beharko litzateke, bizirauteko ezinbesteko baldintza baita.
  - b. Agerian jarri da, antzeko egoera linguistiko eta sozialetan, Espainiako estatuko herritarrek beren eskubide konstituzionalak urratuta ikusten dituztela, hizkuntzari dagokionez, beste erkidego autonomo batzuetakoak izateagatik.
5. Hizkuntza ofizialei dagokionez -aranera, katalana (Katalunia, Balear Uharteak eta Valentzia), euskara (Nafarroako eremu euskalduna eta Euskal Autonomia Erkidegoa) eta galegoa-, Foroak:
  - a. Agerian utzi ditu Adituen Batzordearen IV. txostenean (2010-2013) detektatutako akats nagusiak oraindik ere mantentzen direla eta, kasu batzuetan, okerrera egin dutela.
  - b. Gobernu zentralaren eta komunitate autonomoen jokabideen artean desadostasunak daudela ikusi du. Oso argi geratu da Espainiako Gobernuko eta Estatuko Administrazio Zentralaren mendeko erakundeek ez dutela afera propiotzat hartzen aniztasun linguistikoa babestea eta sustatzea, nahiz eta Gutuna berrestarekin hartutako konpromisoek horretara behartzen dituzten. Gertatu diren aurrerapenak, txiki zein handiak, erkidego autonomoetako edo tokiko gobernuen ekintzei esker egindakoak izan dira, duten eskumenaren arabera.
  - c. Hizkuntza ofizialen inguruko konpromisoak betetzeari dagokionez, erkidego autonomoen artean aldeak handiak direla ikusi da, bereziki larriak 8. (hezkontza) eta 11. (komunikabideak) artikuluetan. Halaber, erkidego autonomoen artean hizkuntza bereko hitzunen artean ere alde nabarmenak daude.
6. Ezinbestekoa da aldizka langune bat ezartzea aniztasun linguistikoa gertakari aberasgarri gisa onartzen duen gizartea sortzen aurrera egiteko, eta Gobernu Zentralak hartutako konpromisoak betetzen laguntzeko.

### AMAZIGERA MELILLAN

#### (Mohand Tilmatine)

- Estatuko txostenak egitean, Cutuna berrestean hartutako konpromisoen betetze mailaren monitorizazioaz arduratuko den Adituen Batzordeak proposatutako gai guztiak landu behar dira.
- Amazigerak ez du ikusgarritasunik edo presentzia instituzionalik (justizia, hezkuntza, seinaleztapena eta abar). Hori dela eta, erabilera publikoetan legitimatu behar da.
- Melillak ez du hizkuntz politikaren jarraipenaz modu espezifikoa arduratzen den erakunderik.
- Melillan, jatorri iparrafrikarra duten bertako herritar autoktonoen nortasun ikur gisa erlijioa aipatu ohi da, «musulman» gisa identifikatuta, eta horrek bereizketa/oposizioa sortzen du: «herritar europarrak, kristauak» vs. «herritar musulmanak». Melillako musulmanak, jabetuta edo jabetu gabe, gainerako musulmanekin asimilatzeak zuzeneko eragina du jarrera, jokabide eta leialtasun instituzionaletan zein nazioartekoetan. Hori dela eta, batez ere nortasunaren markatzaile eta erreferentzia gisa islamaren ordeztu amazigera hartzearen alde egitea gomendatzen da.

### CEUTAKO ARABIERA

#### (Francisco Moscoso)

- Ceutako arabierak aitortzea izan beharko luke Ceutako Autonomia Estatutuan. Hizkuntza minorizazio egoeran eta arriskuan dago, Espainiako Administrazioak, oro har, eta Ceutakoak, bereziki, ez baitute interes askorik (batere interesik ez dutela ez esateagatik), eta elebakartasun militantea sustatzen eta hauspotzen du, Ceutako arabiera etorkinen hizkuntza, tradizioz gabea eta etsaiaren, Marokoren, hizkuntza gisa hartuta. Beraz, ezinbestekoa da 7. artikuluko puntu guztiak betetzea hizkuntza babesteko.
- Ceutako arabieraren presentzia bermatu behar da komunikabideetan, Administrazioan eta hezkuntza sisteman.
- Ceutako arabieraren Akademia bat sortu behar da, honako helburu hauekin:
  - Hizkuntza horren kodifikazioa eta normalizazioa abiaraziko duen adituen batzordea eratzea, bertako beste hizkuntza arabiar batzuetarako egindako proposamen akademikoak helburu gisa hartuta.
  - Ceutako arabiera ikastea sustatzea elebakarren artean, Hizkuntzen Institutuan, Hezkuntzan eta Administrazioan.
  - Ceutako Ikasketa Institutuan sortutako Arabiera Departamentuan hizkuntza hori ikastea sustatzea.
  - Ceutako Hezkuntza, Ekonomia eta Teknologia Fakultatea kontzientziaztea etorkizunean lehen eta bigarren hezkuntzako irakasleen ikasketa planetan sar dezaten.

### ARAGOIERA ARAGOIN

#### (Anchel Reyes)

- Aragoi aragoierarako urrats positiboak ematen hasi dira 2015etik, Hizkuntza Politikako Zuzendaritza Nagusia sortuta. Hurrengo legealdietan aurrerapen horietan sakondu behar da modu konstantean; izan ere, 25 urte hauetan erakundeek ez dute ekintzarik egin; ondorioz, Aragoiko Gobernuak Cutuna behin eta berriz urratu du eta hiztunak etengabe galdu dira.

- Lehenik eta behin, Kultur ondarearen 3/1999 Legeak aragoierari egiten dion lege aitortpena Hizkuntzen 3/2013 Legea zabaldu behar da, eta etorkizunean erakundeak prestatu beharko ditu lege horrek Autonomia Estatuaren bidez hizkuntzaren koofizialtasuna ezartzeko (hiztunen hizkuntz eskubideen erabateko berme gisa). Bigarrenik, zonakatze ofizial zabala ezarri behar da, Zaragoza hiria kontuan hartuta, aragoiera hitz egiten den lurraldean hizkuntz politikak aplikatzen direla bermatzeko. Hirugarrenik, erakundeek, komunikabide gako bidez, hizkuntzaren ahozko eta idatzizko erabilera sustatu behar dute, esaterako, irrati eta telebista publikoan, eta ondare linguistikoari buruzko kontzientzia kanpainak sustatu, Aragoiko gaztelerazko hiztun elebazarren gehiengoaren aurreiritzi linguistikoak desagerrarazteko.
- Hezkuntzaren arloan, eskolako ordutegian aragoiera ikasteko eskubidea bermatu behar da, eta pixkanaka ezarri hizkuntza nagusi gisa, hala eskatzen duten ikastetxe publikoetan. Horrenbestez, helduentzako aragoieraren irakaskuntza profesionalizatu behar da, gehienbat irabazi asmorik gabeko elkarte eta erakundeek egiten baitute. Irakaskuntza da hizkuntza horretarako lehentasun nagusia, belaunaldien arteko transmisioa hautsi izanaren indize altuak baititu mehatxu.
- Ikerketa eta beste hizkuntza gutxiagotutako komunitate batzuekin harremanak sustatzea dira Gutuna betetzeko helburua lortzeko sakondu beharreko beste bi gako.
- Adostasun sozialak eta politikoak sortu behar dira, erakundeek desagertzeko arriskuan dagoen ondare immaterial hau babesteko eta hiztunen eskubideak bermatzeko modu konstantean eta erabakigarrian jardun dezaten.

## **ARANERA KATALUNIAN**

**(Francesc Xavier Lamuela, Maria Verges Perez)**

- Aranera, Val d'Aranen hitz egiten den okzitaniara, muturreko ahultasun egoeran dago. 2008an bailarako biztanleen %23,4k zioen ohiko hizkuntza zuela, aldiz, 2013an, % 17,6k soilik.
- Haur eskolen eremuan, Kataluniako Generalitatearen araudiak udalerrien errealitatea jaso behar du; izan ere, kudeaketa udalen gain dagoenez, desadostasunak sortzen dira hizkuntza ezagutu behar duten langileei dagokienez.
- Hizkuntza sustatzeko jardueretan Estatuaren inibizioa berretsi da, eta gainerako hizkuntzetarako aipatutako alderdietan jarrera negatiboak erakutsi ditu, eta horrek ondorio bereziki larriak izan ditu Justizia Administrazioan.
- Kataluniako Generalitateko eta Conselh Generau d'Araneko hizkuntz politikari dagokionez, kultur jardueretan nolabaiteko bizitasuna ikus daiteke, eta irakaskuntzaren egoera nahiko ona da. Baina, kulturaren eremuko ekimenak eta hizkuntzaren ezagutza zabaltzeko aurreko politiken jarraipena salbu, gaur egun ez dago hizkuntz politikarik. Oraindik ez da garatu 35/2010 Lege katalana, okzitaniararena, aranerarena Aranen, eta ez dago formalizatutako eta koherentea den hizkuntz politikarik. Profesionalen prestakuntzaren gabezia jarduera eremu ugaritara zabaltzen da, eta irakaskuntzan nabarmena izaten hasi da. Administrazioan, araneraren erabilera onargarria tokian-tokian soilik gertatzen da. Komunikabideetan, araneraren presentzia marjinala da. Eremu sozioekonomikoan ez dago araneraren inolako sustapenik.
- Adierazitako guztia kontuan hartuta, ezinbestekoa da:
  - 35/2010 Lege katalana sistematikoki garatzea.
  - Hizkuntz politikaren plan antolatua, eremu ugaritako profesionalen prestakuntza eta eremu sozioekonomikoan esku hartzea ekarriko duena.

- Okzitaniako lurraldean Frantziako eskualdeekin akordioak ezartzea, hizkuntz politikako ekintza bateratuak egiteko, bereziki irakaskuntzaren, komunikabideen eta hizkuntza lantzeko eremuetan.

## ASTURIERA ASTURIASEN

### (Carlos Pulgar Garcia)

- Ez dago errespeturik hizkuntzaren arloekiko eta ez dago erakunde mailako harremanik beste talde batzuekin.
- Ez dago asturiera sustatzeko ekintzarik martxan hura salbatzeko asmoz; jarduera kultural jakin batzuk nolabait sustatzeko neurriak soilik. Ez da ahalbidetzen, inola ere, herritarrek Administrazioarekin asturiera idatziz/ahoz erabiltzea, ezta Administrazioan zeharka erabiltzea ere.
- Hezkuntzaren eremuan, presentzia partziala eta prekarioa da. Asturiera aukerako ikasgai gisa soilik dago lehen eta bigarren hezkuntzan. Ez dago araututa bere presentzia ez haur hezkuntzan, ez hizkuntz eskola ofizialetan, ezta helduen irakaskuntzan ere. Unibertsitatean *minor* batean baino ez dago presente. Asturiera egiten ez dutenen artean ere ez dago ikasteko bitartekorik; eremu horretan, elkarre sozialek egiten duten lana baino ez dago.
- Asturieraren erabilera bazterketa dago Administrazioan. % 100 gaztelaniaz pentsatutako eta sortutako administrazioa da; asturieraren erabilera oso baldintza jakin batzuetan «jasaten» da, eta gaika murriztuta.
- Hizkuntz taldeen arteko bizikidetzak ona da, baina agintariek ez dute ezer egiten hori sustatzeko. Komunikabide publikoek ere ez dute arlo horretan ezer egiten.
- Agintari publikoek harrera baxua edo nulua egiten diete komunitate linguistikoaren eskariei. Ez dago bitartekaritza erakunderik maila autonomikoan.
- Egoera horrekin, premiazko lehentasun batzuk daude:
  - Asturieraren hiztunentzako berdintasun juridikoa ezartzea, hau da, ofizialtasuna. Hizkuntza koofiziala izanik baino ez ditu izango asturieraren hiztunen komunitateak gaztelaniazko hiztunen eskubide berberak.
  - Derrigorrezko ikastaldia amaitzean ikasle guztiek asturiera ezagutzen dutela bermatzeko hezkuntza sistema ezartzea. Horretarako, funtsezkoa da irakaskuntzan hizkuntza erabiltzea hizkuntza nagusi gisa.
  - %100 asturieraz egindako komunikabide publikoak ezartzea. Gutxienez TB kanal bat, irrati bat eta plataforma digital bat izanik hizkuntzaren normalizazioaren zerbitzura.
  - Administrazioan asturieraren erabilera transbertsala eta erabilera sistematikoa.
  - Toponimia ofizial bihurtzeko prozesua amaitzea eta sistematikoki aplikatzea euskarri guztietan.
  - Belaunaldien arteko transmisioa ahalbidetuko duten neurri bereziak (eskolan, TBko haurren programazioarekin, sozializazioarako eta aisialdirako eremuetan, etab.).

## KALOA (ERROMANOA)

### (Juan F. Gamella)

- Kaloa edo erromanoa Espainiako *calei* edo ijtoek sortutako hizkuntza mistoa da, romanitik eratorritako lexikoa eta hizkuntza maioritarioen, hau da, gaztelania, katalan edo euskararen gramatika konbinatuta. Iberiar Penintsulan hitz egiten ziren erromani aldaera osoak higatu edo desagertu zirenean gertatuko zen ziurrenik bere sorrera.

- Teknikoki, khaloa hizkuntza pararromania da, ez da erromaniaren aldaera bat. Lurralde kanpoko hizkuntza minoritarioa.
- Gutunaren berrespenean, erromaniaren gutxiengo nabarmenak dituzten zenbait herrialdek gero eta gehiago sartu dituzte «Sintien erromania eta *roma* alemana» (Alemania, 1998), «*romani chib*» (Suedia, 2000), «*romanes*» (Finlandia), «*roma*» hizkuntza (Txekiar Errepublikak, 2006), «romania» (Hungaria, 2008) edo «romania» (Errumania, 2008) errespetatuta, babestu eta sustatu beharreko hizkuntza gisa.
- Edonola ere, inongo estatuk ez ditu modu espezifikoa aipatu aldagai pararromaniak babesa jaso beharreko hizkuntza gisa. Zer egin orduan hizkuntza horiek babesteko? Izan ere, Europan dauden guztien arteko mehatxatuenak eta agonikoenak izango dira, eta hain zuzen bereziki urrakorrek diren eta baztertuta dauden taldeek erabiltzen dituzte. Erromaniaren babesaren eta sustapenaren barruan sartu nolabait? Hispanorromaniaren berreskurapena Europako bizitza publikoan eta komunikabideetan gero eta handiagoa den erromaniaren aldagaien bizitasuna adieraztearekin eta aitortzearekin lotzen saiatu? Ikastetxeetan eta komunikabideetan hizkuntza horien presentzia handiagoa eskaini? Eta bizitza instituzionalean?
- Gutunak berak gomendatzen du ezagutzeko eta arreta emateko hizkuntza horiek hitz egiten dituzten taldeek adierazitako beharrei eta nahiei» (7.5 artikulua). Dagoeneko badaude gai horien inguruan «agintariei aholkuak» eman diezazkieketen erakunde batzuk, bai Espainian (Ijito Herriaren Estatuko Kontseilua, Ijito Kulturaren Institutua), bai Europan (European Academic Network on Romani Studies, European Roma Institute for Arts and Culture). Arlo horretan aurrera egin beharko litzateke, komunikazio publikoan eta hezkuntzan hispanorromaniaren berreskurapen, aitorten eta adierazpenerako aukerak eta oraingo errealitateak hobeto ezagutzeko?
- Hispanorromaniaren berreskurapenean ezinbestekoa izango da erromaniako hiztun natiboak izatea Espainian, baita Europa osoan hizkuntza hori ikasteko eta sustatzeko metatutako esperientzia eta gaitasun handia izatea ere; horren isla dagoeneko ari da ikusten Espainian, gaztelaniaz erromania ikasten hasteko programarekin, esaterako («Sar san? ¿Cómo estás?», Jiménez y Cañadas 2012). Gutunak euskarri argia eskaintzen du zentzu horretan, 7.1.i artikuluan, estatu sinatzaileei eskatzen baitie «bi estatutan edo zenbaitetan berdin edo antzera hitz egindako hizkuntza minorizatuertako nazioarteko trukeak behar bezala sustatzea» ahalbidetzeko.

## KATALANA ARAGOIN

### (Javier Giralt Latorre)

- Katalanaren izendapena sartzeko Aragoiko Autonomia Estatutuko 7. artikuluan, eskualdeko «hizkuntza eta modalitate linguistikoez» hitz egiten den lekuan. Katalanari inoiz izan ez zuen ospe soziala eta aitortpena emateko modu bakarra horixe da. Horrek, gainera, saihestuko luke politikarien erabakimenaren mende geratzea Zerrendan hitz egiten den hizkuntzari zer izen eman.
- Aragoi katalanaren koofizialtasuna aitortzea. Neurri horrek ahalbidetuko luke hizkuntza politika eta plangintza erabakigarriak egitea, Zerrendan katalanaren erabilera normalizatzeko.
- Zerrendako ikastetxeetan katalanez eskolatzeko aukera ezartzea edo, gutxienez, nahitaezko irakaskuntzan gaztelaniaz edo ingelesez ematen diren ordu kopuru bera ematea hizkuntza horretan. Hala, benetan katalanaren ahozko eta idatzizko erabilera sustatu ahal izango da eremu guztietan, eta hala, belaunaldi berriak komunikazioko lau trebezietan katalana erabiltzeari dagokionez trebeak izan daitezkeen lortuko da.
- Aragoiko errealitate linguistikoari dagokionez lan pedagogiko sakona egitea, Aragoiko gizarte osoari jakinarazteko badagoela komunitate autonomo horretan katalana hitz egiten den eremu bat. Horrela soilik lortu ahal izango da aragoiarrek pixkanaka ukazina den gertakari linguistiko baten inguruan kontzientzia hartzea eta horrekiko sentsibilitatea erakustea. Zeregin horretan inplikatu behar dute Aragoiko erakunde guztiek, baita ikastetxe (publiko eta pribatu) eta komunikabide guztiek ere.

## KATALANA KATALUNIAN

(Eva Pons, F. Xavier Vila i Moreno)

- Katalana da Gutunak babestutako hizkuntzen artean hiztun gehien dituen (Europako beste estatu batean era berean ofizialak diren LRoM hizkuntzak salbu) eta estatus ofiziala du Katalunian, Valentziako Komunitatean (valentziera izenarekin) eta Balear Uharteetan. Egoera berezi hori islatzen da Gutunaren II. eta III. ataletan jasotako eremuetan hizkuntzak gaur egun duen bizitasunean. Bizitasun hori, hala ere, mehatxatuta egon liteke etorkizunean Gutuna modu koherentean aplikatzen ez bada.
- 7. artikuluari dagokionez, Gutuneko printzipioak ez ditu errespetatzen Espainiako estatuak; izan ere, katalanari diskurtso publikoetan eta komunikabideetan eraso latzak baimentzeaz gain, estatuko hizkuntzaren erabilaren aldeko legediak egiten ditu –beti eta gero eta ugariago sektore estrategikoetan-. Komunitate autonomo desberdinetan bizi diren gaztelania hiztunen arteko harremanak sustatzeari dagokionez, ez dago aurrerapen adierazgarririk, Aragoi eta Valentzian gobernu aldaketak izan arren.
- Hezkuntzan (8. artikulua), nahiz eta arrakastaz lortu ikasleak elebidun izan daitezen, natiboak ez diren ikasleek artean katalana idatziz ikasteko eta lagunarteko hizkera ikasteko zailtasunak ikus daitezke, eta horrek pertsonen arteko erabilera hedatzea mugatzen du (7.1.d artikulua). 31/2010 Konstituzio Auzitegiaren Epaia (2006ko Estutuari buruzkoa) dela eta eskolako hizkuntza ereduak –babes sozial oso zabala duena– judizializatzearen eta gatazkatsu bihurtzearen eraginez, 12 ikastetxek hizkuntza proiektutik bereizi behar izan dute eta Generalitateak ordaindu behar izan du 39 familiaren eskolatzeko pribatua. Unibertsitate mailan, atzerriko hizkuntzen erabilera sustatzeko eleaniztasunaren planen aplikazioak, praktikan, katalanaren atzerapena eragiten du, gaztelaniaren mesedetan, eta kasu batzuetan, ingelesaren mesedetan.
- Justizian (9. artikulua), Gutunaren arau hausteei irain egiten dute eta katalanaren egoera okerrera doa: katalanez egindako epaiak % 12,4 izatetik (2013) % 8,5era jaitsi dira (2016). Alderdietako batek hala eskatzen duenean prozesu judizialak katalanez egitea ahalbidetzea eskatzeko Estatuko Botere Judizialaren Lege Organikoaren erreforma proposamenak atzera bota ditu Parlamentuaren ezezkoak (2013, 2014 eta 2016). Kataluniako gobernuak, eskumen mugatuak izan arren, justizian katalanaren erabilera sustatzeko ekimenak indartu ditu (bitarteko langileentzako eta abokatuentzako pizgarriak, prestakuntza, itzulpena eta abar), baina estatuko erakundeek eta abokatuak gaztelaniatutako sektore batzuen aldetik jasotako lankidetzak urria da, eta horrek eragin praktikoa murrizten du.
- Estatuko administrazioei dagokienez (10. artikulua), langileen gaitasunetan eta erabileran detektatutako arau hausteen egoera mantendu egiten da legedi orokor berriarekin (39/2015 eta 40/2015 legeak). Pertsonen Defendatzaileak eta Hizkuntza Bermeen Bulegoak katalan hiztunen hizkuntza eskubideen arau hauste ugari jaso dituzte. Larrienak Guardia Zibilaren ekintzen ingurukoak dira. Administrazio autonomikoetan eta tokiko administrazioetan, 31/2010 Konstituzio Auzitegiaren Epaia katalanaren erabilera arautzen duten legeak azpiko arauen aurrean ohiko epaitegien interpretazio murriztaileak egitea ahalbidetzen du, ondorioak mugatuak izan arren.
- Komunikabideei dagokienez (11. artikulua), Estatuko araudiak eta legediak oso zentralizatzaileak dira eta ikus-entzunezko komunikabideen gaztelaniatzea ahalbidetzen dute. Katalunian, katalanezko telebistaren ikus-entzuleak 2017an % 20ren azpitik geratu ziren. Katalanez hitz egiten den gainerako lurraldeetan, botere publikoek katalanez emandako kanalak hartzea mugatzen duten lekuetan, ikus-entzuleak oraindik gutxiago dira, eta Valentziako Komunitatean, gaur egun, ez da katalanezko telebistarik ikusten.
- Sektore kulturaletan (12. artikulua) eta sozioekonomikoetan (13. artikulua) Kataluniako gobernuak garatutako politikak Gutuna betetzen laguntzen dute. Aldiz, merkatuaren batasun printzipioaren Estatuko interpretazioak sarri Gutuna betetzea eragozten du, disonibilitate linguistikoa aurreikusten



duen Kontsumo Kode Katalanaren helegiteetan, edo katalanezko zinema eskaintza berriz orekatu nahi duen Zinemaren Legean. Gainera, kezka iturri da eremu soziosanitarioan eta gizarte arretaren eremuan hizkuntzak duen egoera. Erabilera Linguistikoen Inkestaren datuek islatzen dute 2003 eta 2013 artean 400.000 banako baino gehiagoko jaitziera izan zela medikuekin gehien bat edo erabat katalanez hitz egiten zuten pertsonen kopuruan, batez ere Estatuko gainerako lekuetatik eta atzerritik, hizkuntza prestakuntza egokirik gabe, etorritako profesionalen sarrera masiboaren eraginez. Katalana, gainera, ia absente dago informazio farmazeutikoan.

## **KATALANA BALEAR UHARTEETAN**

**(Bernat Joan i Marí, Joan Meliá Garí)**

- Espainiak bere gain hartutako konpromisoen betetze maila aztertzeko garaian, arreta handiagoa jarri behar dugu lortu nahi ditugun eta oraindik indarrean jarraitzen duten helburu orokorretan horiek lortzeko zehaztutako neurrietan baino. Izan ere, Gutuna onartu zutenetik igaro diren 25 urteotan gertatu diren era guztietako aldaketak direla eta, horiek eguneratu beharra dago.
- Espainiako erresumako lurralde batzuetako eskualdeko hizkuntzen edo hizkuntza gutxituen alde Gutuna berresteko garaian bere gain hartutako konpromisoak betetzearekin lotuta Estatuko erakundeek izan duten arduragabetasunaren ondorioz, hizkuntza komunitate bereko herritarren hizkuntza eskubideak oso ezberdinak izaten dira bizi diren lurraldearen komunitate autonomoaren arabera. Gainera, une bakoitzean gobernuan dauden indar politikoen arabera, komunitate autonomoetako hizkuntza politika aplikatzeko garaian kontraesanak gertatzen dira (horixe gertatzen da, adibidez, 1999tik gaur egunera arte Balear uharteetan ikusitako alternatibetan).
- Balear uharteetan, irakaskuntzan katalanaren alde hartutako neurriak (Adituen Batzordeak beste txosten batzuen bidez baloratutakoak) ezbaian jarri eta oztopatu egin zituzten 2003-2007 eta 2011-2015 legealdietan arrazoi politiko eta elektoralistak medio (eta ez horrenbeste pedagogikoak). Gorabehera horiek eragiten duten ezegonkortasunak eragin negatiboa du irakaskuntzaren eragingarritasunean, eta ez soilik hizkuntzarekin lotuta.
- Ikasleak poliglotizatzeke helburuak ezin du katalanaren ezagutza indartzearekin kontraesanean egon jatorri katalanofonoa dutenentzat zein familiako beste hizkuntza batzuk dituztenentzat. Esparru horretako proposamenek demagogian beharrean, sen komunean eta eragingarritasunean oinarritu beharko lukete.
- Estatu mailako komunikabideek (gestio pribatukoek zein publikoek) errealitate eleaniztunari erantzun eta errespetua bultzatu beharko lukete, komunikabide horietan gertatu ohi izan denaren aurka.
- Beharrezkoa da ikus-entzunezko ekoizpenaren katalanezko eskaintza areagotzea komunikabide pribatuetan zein publikoetan. Horrekin lotutako lehen neurria izango litzateke katalanezko komunikabide publiko eta pribatu guztien harrera bermatzea katalana hitz egiten den lurraldeak dituzten komunitate autonomo guztietan.
- Justiziarri dagokionez, Estatuak bere gain hartutako konpromisoak ez dira ia inoiz betetzen, eta Gutunak aitortzen dituen eskubideak errespetatzea nahi duten herritarrek zailtasun ugari eta mehatxuak (batzuk beste batzuk baino esplizituagoak) topatzen dituzte haiek erreklamatzan hasten direnean. Horixe bera gertatzen da herritarrek segurtasun indarrekin izaten dituzten harremanetan eta bereziki Estatuko indarrekin.
- Osasun arloan, etengabeak dira katalanez arreta jasotzeko zailtasunak. Ez da hartzen profesionalak katalana ezagut dezaten neurririk eta hori guztia beharrezkoa da Gutunak jasotzen dituen helburuetara aurrera egiteko.

## **EUSKARA (orokorra)**

**(Alberto Barandiaran, Eduardo Javier Ruiz Vieytez, Garbiñe Petriati)**

Euskara gaur egun ia milioi bat pertsonak hitz egiten duen hizkuntza ez indoeuroparra da. Bizkaia, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroa lurralde historikoetan (Espainiako erreinua) eta Pays Basque mankomunitateko lurraldean (Frantziako errepublika) hitz egiten da. Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan eta Nafarroako Foru Komunitateko «eremu euskalduna» izenekoan (lurraldearen ipar-mendebaldea) egoera ofiziala du.

Espainiako estatuan euskararekin lotuta Gutunean jasotakoak duen betetze mailari dagokionez, irregularra eta asimetrikoa da Gutuneko artikulua eta aplikatzeko lanetan inplikaturik dauden administrazioen arabera.

7. artikuluko printzipio orokorrak, euskararekin lotuta, neurri batean bakarrik betetzen dira. Honako hauek eska daitezke Espainiako estatuari: errealitate eleaniztuna modu zintzoan onar dezala, Espainiako herritar eta erakunde guztiek hizkuntza arloko aniztasuna baloratzea, eta euskararen moduko hizkuntza gutxitu bat behar bezala garatzea eragozten duten administrazioen eta lurralde mailako banaketak desagerraraztea. Horrek guztiak eragin berezia du Nafarroako Foru Komunitateko egoeran; izan ere, lege mailako «hizkuntza zonifikazioak» indarrean jarraitzen du eta horrek euskal hiztun askoren eskubideak murrizten ditu. Horrenbestez, desagerrarazi egin beharko litzateke, hizkuntzaren izaera ofiziala lurralde osora edo, gutxienez, hiriburura, zabaldua, han bizi baitira eragile publiko eta pribatu gehienak.

## **EUSKARA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN**

**(Alberto Barandiaran, Eduardo Javier Ruiz Vieytez)**

- Hezkuntza arloan, euskararen presentzia gaur egun nahiko bermatuta dagoela esan dezakegu, baina zenbait esparrutan (lanbide heziketan edo helduen prestakuntzan, adibidez) oraindik ere bete gabeko alderdiak edo urritasunak daude.
- Justizia administrazioan, euskararen presentzia oraindik ere ia hutsala da eta Gutuna berretsita Espainiako estatuak bere gain hartutako konpromisoak ez dira betetzen modu argian. Botere Judizialaren Lege Organikoa, gaur egungo idazketaren arabera, Gutunarekiko bateraezina da eta, ondorioz, atal horietan aldatu edo aplikatu gabe utzi beharko litzateke.
- Autonomia Erkidegoko administrazio publikoei dagokienez, autonomia, foru edo udalerrri mailako administrazioen mende dauden sektore batzuetan aurrerapen handiak gertatu dira, baina oraindik ere euskarazko zerbitzuak eskaintzeko bermeari dagokionez atzerapen handiak daude Osasungintza publikoan edo Ertzaintzan. Estatu Administrazio Nagusiaren mende dauden esparruetan, egoera nabarmen da okerragoa eta Gutunean idatzitako konpromisoak ez dira betetzen.
- Euskarak badu Gutuneko 11. artikulua betetzea ahalbidetzen duten komunikabideen gutxienerako sarea, baina komunikabide horiek presio handia jasaten dute hizkuntza mailako desoreka handiko egoeran. Administrazio publikoek euskarazko komunikabideak zein era guztietako kultur jarduerak bultzatzera bideratutako baliabideak areagotu beharko litzateke. Ildo berean, esparru ekonomikoetan eta sozialetan euskararen erabilera bultzatzeko politikak handiagoak izan eta, dagokionean, gutxienerako prestazioak hizkuntza horretan bermatzen ez direnean neurri zehatzaileak bildu beharko litzateke.

## **EUSKARA NAFARROAN**

**(Alberto Barandiaran, Garbiñe Petriati)**

- Euskarak Nafarroako Foru Komunitatean bizi duen egoerak Euskal Autonomia Erkidegoko muga eta oztopo berberak islatzen ditu, baina larriagotuta daude zonifikazioaren eraginak eta Nafarroako berezko hizkuntza horren normalizazioarekiko uzkur agertu diren erakunde mailako politikak urte askotan izandako ondorioak direla eta.

- Behar-beharrezkoa da komunitate autonomo berean eskualdeko hizkuntza bateko edo hizkuntza minoritario bateko hiztunen artean ezberdintasun handiak eragiten dituzten administrazio mailako banaketak desagerraraztea. Horrenbestez, beharrezkoa da Nafarroa osoan Gutunaren aplikazioa defendatzea, berreste-tresna hitzez hitz interpretatuta (alderdi hori oso zentzuzkoa den arren, bistakoa den moduan, ez dira hori egiten ari).
- Hori gertatu bitartean, Gutuneko II. zatia hizkuntza zonifikazioa dela eta, hizkuntzak berezko izaera duen arren, ofizialtasunik ez duen erkidego autonomoetako eremuetan aplikatu beharko da. Horixe da, adibidez, Nafarroako zati handi batean euskarak bizi duen egoera.

## **FALA EXTREMADURAN**

**(Tamara Flores)**

- Ez dago falaren estatutu mailako aitorpenik. Lege aitorpen bakarra 2001eko BIC aitorpen bat da.
- Extremadurako Juntaren aldetik informazio gabezia erabatekoa da. Isiltasun hori udalek eta elkarteek erakunde publikoei, 2014-2016 aldian, egindako askotariko eskaeretara zabal liteke, hala nola Presidentetzari, Hezkuntza eta Kultura Kontseilaritzari edo Sustapen, Etxebizitza, Lurralde Antolaketa eta Turismo Kontseilaritzari.
- Estatuko laugarren txostenean ageri diren informazioak, guztiak, oso zalantzarazkoak dira. «A Fala na escola» programa hezkuntza sisteman sartzea ez da gertatu: «Taller de Lingua» izeneko bat soilik lagundu da diruz, eta horri hurrengo urtean diru-laguntza hori kendu zitzaion, izena emandakoen % 100 izan arren. Museu da Fala sortzeari dagokionez, eraikinaren zaharberritzea soilik amaitu da. Ez dago inolako programaziorik eta aurrekontu esleipenik haren ustezko funtzioetarako.
- 2014-2017 aldian 7. artikuluekin lotutako ekimen guztiak elkarte kulturelek edo banakoek garatu dituzte, laguntza ekonomikorik, logistikorik edo giza laguntzarik gabe. Sierra de Gatako Parke Kulturalaren orain gutxiko Ekintza Planean zenbait neurri daude jasota (hezkuntza programan eta programa zientifikoan). Parke horrek Cacereseko Diputazioaren erakunde mailako babes du.

## **GALEGOA ASTURIASEN**

**(Carlos Xesus Varela Aenlle)**

- Ez dago Asturiaseko galegoaren babesik Asturiasko Printzerriko Gobernuaren aldetik. Autonomia Estatutuaren Legeak «bablea» soilik hartzen du kontuan. 1998ko Bablea/Asturiera Erabiltzeko eta Sustatzeko Legeak babes, errespetu, tutoretza... erregimena aipatzen du, berezko hizkuntza modalitatearen izaera duen eremuetan galegoa/asturiera zabaltzeko. Ohartu behar da legeak asturiera soilik aipatzen duela Asturiasko berezko hizkuntza gisa eta inoiz ez galegoa, «modalitate» gisa soilik ageri baita (ez dakigu oso ondo zer hizkuntzarena), eta nahita «fala» glotonimoa erabiltzen da, ezer esan nahi ez duena. Ereku linguistiko horiek ez daude Asturiasko gobernuak definituta eta, hala, galegoz hitz egiten den lurraldean asturiera klaseak ematen direla ikus dezakegu –Verducedon (Allande) edo Luiñan (Ibias), esaterako–, eta era berean, Printzerriko seinaleztapena asturieraz ageri da zenbait lekutan, esaterako: A Veiga, Valdebois (Ibias), El Valledor (Allande), adibide gutxi batzuk ematearren.
- Asturiasko galegoa sustatzeari dagokion Gutunaren 7. artikuluekin jarraituz, diru-laguntzen politikan ezin dira ofizialki banakatu zer ehuneko bideratzen den asturierarako eta zer ehuneko Asturiasko galegorako. Bestalde, emaitzak Printzerriko gobernuak jendaurrean egindako itxura garbitze hutsa dira.
- 7.1.e paragrafoa argi eta garbi urratzen du Printzerriak eta Academia de la Llingua Asturianak (ALLA), ez baitago Eo-Naviako galego hiztunen eta galegoz hitz egiten den gainerako lurraldeen arteko

erakunde mailako harremanik; maila sozialean edo kulturean direnean, Gobernuak, ALLAk eta Asturiasko erakunde batzuek dinamizatzen baititu.

- 7.1.f puntuan, Eo-Navia eskualderako zehaztutako hizkuntza politikarik ez dagoela zehazten da. ALLAk batere eraginkorra ez den Idazkaritza du, eta gainera, ustezko Hizkuntza Normalizazioko Bulego batzuk daude (Naviako Parke Historikoa, Ozcos-Eo mankomunitatea), irizpide uniformerik eta zientifikorik gabe. Irakaskuntzan, material gabezia nabarmena da, unitate didaktiko egokirik gabe, asturieratik eta batzuetan galegotik kopiatuta. Eskolak emateko ALLAk emandako 40 edo 60 orduko ikastaro bat behar da, faseen arabera eta ahal dela Filologian lizentziatua. Ikasgaia aukerakoa da, beste batzuekin lehiatzen da ikastetxeen arabera eta ez dago hautatzeko aukerarik guztietan. Hezkuntza eskaintzan gora eginez gero, ez dago ikastarorik, ikasgairik edota gradurik galegoz Oviedoko Unibertsitatean, ezta Magisteritzan eta hizkuntza eskola ofizialetan ere. TPAn ez dago Asturiasko galegoaren programarik (Ambás aurkezlearen ekimen partikularrari esker ateratako *Camín de Cantares* salbuespen bikaina kenduta), eta programa askotan, era berean, asturieraren eta gaztelaniaren aldetik akulturizazio larria gertatzen da. Eo-Naviarako deskonexioa egon beharko litzateke, Naviako O RT Telebistako programa batzuetan egiten den bezala. RTPAn ere galego hiztunen eskubideak urratzen dira, salbuespen jakin batzuetan soilik agertzen baita galegoa eta beti ekimen partikularrei edo militantzia linguistiko-kulturei esker.
- Azterketa eta ikerketen sustapena oso urria da, askotan elkarte eta partikularren altruismotik soilik sortutakoak izan ohi dira. Ez dago prentsarik eta aldizkaririk Asturiasko galegoz eta diruz lagundutako liburu urriak nahitaez Asturiasko araudiarekin argitaratu behar dira. Eta zer esanik ez erakundeen eremuan (Printzerriko webguneak inoiz ez dira galegoz egoten), eremu judizialean edo administratiboan. Noizean behin, izaten dira proposamenak baina gehienez ez dira betetzen (Declaración da Veiga, San Martín de Ozcos eta El Francoko eskaerak eta abar)
- Toponimiaren kasuan, Xunta Asesora de Toponimia del Principáu d´Asturies delakoa dago, erabili beharreko toponimo tradizionalen urratsak markatzen dituen, baina beti asturierako grafia erabiliz edota gaztelaniaz dauden toponimoak edo bulgarismoak «ofizializatuz». Pentsa litekenez, «galego-asturiera» ofiziala ez baldin bada, nola izan litezke ofizialak forma toponimiko horiek? Baterako toponimoen ustezko ofizializazioa da beste gertakari nabarmen bat (Eoko itsasadarra), horrekin, Printzerriko gobernu Sustapen Ministerioaren mende dagoen Goi mailako Kontseilu Geografikoaren Batzorde Geografiko Nazionalak 2008an berretsitako Ribadeoko itsasadarraren toponimoaren ofizialtasuna hausten ari da.
- Galiziako aldetik, gaiaren inguruko interes falta nabarmena da. Real Academia Galegak (RAG) kanpoko galegoarekin konpromiso handiagoa beharko luke, dituen legezko armak erabiliz. Ez da onargarria Asturiasko galegoari buruzko Gutunaren ebaluazioa egiteko azken txostenean (IV, 2010-2013) ALLAren iritzia soilik egotea, «erreferentziako erakunde zientifiko» bakar gisa hartuta. Galiziako Xuntak egunkarietan adierazi izan du kanpoko galegorako Bulego bat jarriko zuela, Núñez Feijóo presidenteak berak ere aipatu zuen Asturiasko galegoaren koofizialtasunari buruz, eta RAGek, kanpoaldeko galegoari buruzko Mintegi bat martxan jartzeari buruz: ez da gehiago ezer jakin gai horren inguruan. Kazetaritzako komunikabideek kutsatutako toponimia erabiltzen jarraitzen dute, modu larrian TVGn eta RGn; eremuko elkarte kulturalen eskaerak ere jaso ditu azken horrek, baina uko egiten dio transmititzeari edo emaitza erabat azientifikoarekin egiten du (*Alalá, Luar*). Komunikabide horiek eguraldi mapetan kanpoaldeko eskualdeak sartu beharko litzukete oinarri kultural-linguistiko argia, eta ez politikoa, duen gertakari diren neurrian.
- Funtsezkoa da Asturiasko eta Galiziako gobernuen artean arlo linguistikoan elkar hobeto ulertzea Asturiasko galegoari dagokionez; izan ere, Galizia egoera hobean dago materialen, normalizazioaren eta abarren inguruan, eta modu ulertezinean baztertu egiten ditu horiek Asturiasko aldeak. Eta bestalde, beharrezkoa izango litzateke Galiziako erakundeak gehiago inplikatzeko. Esaterako: RAG, Consello da Cultura Galega (eskualdeari buruzko proiektu edo argitalpen gehiago), Galiziako unibertsitateak (salbuespena Vigokoa izango litzateke eta USCko kideen ekimen partikularrak), Galiziako Xunta,

Museo do Pobo Galego, Arquivo do Reino de Galicia, liburutegiak eta abar. Eta galegoa sartu beharko litzateke Oviedoko Unibertsitatean, Magisteritzan eta hizkuntza eskola ofizialetan, eskualderako TVG eta RG ordezkari bat ezartzeaz gain.

## **GALEGOA GAZTELA ETA LEONEN**

**(Héctor M. Silveiro Fernández)**

- Gaur egun hezkuntzak edozein hizkuntzatarako eta etorkizunerako duen garrantzia dela eta, ohartarazi behar dugu LOMCEn aplikazioak arazo larriak eragiten dituela bai hizkuntza ofizialeko lurraldeetan, baita, bereziki, ofiziala ez den hizkuntza bat dagoen lurraldeetan ere (esaterako, galegoa Gaztela eta Leonen). Arazoak larriak dira Bierzo eskualdean Promoción do Galego programa mantentzeko garaian, hezkuntza eskaintza osoa eta beste aukerako batzuekin berdintasunean eskaintzeko; hala, hiztun horien hizkuntza eskubideak urratzen dira eta Gutuneko jarraibideak ez dira betetzen. Komunitatean aplikatzen ari den Promoción do Galego programa hobetzeko eta zabaltzeko berrikusketa egitea bultzatzen dugu.
- Ofiziala ez den hizkuntza bat hitz egiten den eta hamarkadatan hiztunak galtzen aritu den lurraldeetan (Gaztela eta Leongo galegoko kasua), beharrezkoa da hezkuntza eremutik harago doazen planifikatutako hizkuntza sustapeneko ekimenak urgentziaz sartzeari, Gutunaren gomendioak jarraituz, eta ofizialtasunerantz bideratuta. Jaitsiera hori gelditu behar da, erabilera tradizionaleko espazioak mantenduz eta era berean hezkuntza eremutik kanporako espazio berriak zabalduz, gaur egun dagoen aberastasun kulturala berez gordetzeko gai ez baita.

## **GALEGOA GALIZIAN**

**(Valentina Formoso, Xaquín Loredo, Alba Nogueira Lopez, Xurxo Salgado, Elsa Quintas)**

- 8. artikuluari buruz, legedia aldatu behar da 79/2010 Dekretua indargabetuta (Eleaniztasunaren Dekretua deitutakoa), Gutuneari hartutako konpromisoak betetzeko bidean aurrera egin ahal izateko. Horrek ez du esan nahi aurreko Dekretua, Gutunaren ebaluaziorako III. Txostenean (2006-2009) aipatzen diren aurrerapenen erantzule dena, zehatz-mehatz berriz hartu behar denik (124/2007); izan ere, hizkuntzen inguruan gizartearen dagoen iruditeria ordutik aldatu egin da, baina atzetik zegoen ideologia normalizatzaile eta hura sustatu zuen adostasunera itzuli behar da.
  - Haur hezkuntzan galegoa sustatzea (2010etik eragin handiena jasan duen etapa). 2007 eta 2009 artean praktikan jarritako eta III. txostenean ebaluazio positiboa izandako proiektu berritzaileek sortutako aurrerapenetatik abiatuta. Onartezina da hiriguneetako ikastetxeen % 90ean baino gehiagoan erabilitako hizkuntza gaztelania izaten jarraitzea. Gaur egun, Gobernuaren haur hezkuntzako eleaniztasun proiektu berriarekin ingelesak galegoari lekuri ez uzteko arriskua dago.
  - Hezkuntza etapa ugarietan ikasgai guztietarako hizkuntza nagusi gisa galegoak dituen debeku oro kentzea. Galegoak matematika, fisika edo teknologia, edo beste edozein ikasgai azaltzeko hizkuntza izatera itzuli behar du. Horretarako, hezkuntza maila guztietarako hizkuntza horretako materialak prestatzen lagundu behar da, haur hezkuntzan eta lanbide heziketan arreta berezia jarrita. Era berean, hizkuntza nagusi gisa galegoa erabiltzeko ehunekoan ezarritako gehieneko topeak ere desagertu behar dira.
  - Eleaniztasun inklusiboa sustatzea, hizkuntzarik kanpoan utzi gabe eta beti Galiziatik bertatik abiatuta, hau da, galegotik. Horretarako, boteretik zabaldu den diskurtso kaltegarria eta legedia aldatu behar dira, galegoak modernoagoak, lehiakorragoak eta etorkizun gehiago izateko eta arrakasta segurua izateko enbarazu egiten duela sinestarazi baitute (diskurtso horretan, ingelesak

soilik bermatzen ditu horiek). Hezkuntza maila guztietan Hizkuntzen Tratamendu Integratua lortzeko lan egin behar da, beti kontuan hartuta galegoa hartu behar dela erreferentzia gisa eta behar bezala sustatu behar dela, gutxiagotasun egoera dela eta.

- Galegoaren erabilera sustatzea hezkuntza tekniko eta profesionalean, lexiko tematiko espezifikoak egitea sustatuz, baita eremu horretako irakasleen prestakuntza sustatuz ere. Ekintza horiek lan eremuan hizkuntza sustatzearekin lotu behar dira.
- Irakasleei prestakuntza ematea behar bezala etengabe, ikuspegi linguistikotik (beharrezko gaitasunak eskura eta manten ditzan) eta ikuspegi soziolinguistikotik (hizkuntza minorizatuaren sustapenean duen erantzukizuna ulertzeko eta ikastetxeko Proiektu Linguistikoak egiten erantzukizunez joka dezan, horiek erabilera errealeko dokumentuak izan daitezzen eta ez izapide burokratiko soilak).
- Etengabeko ebaluazioa eta denboran jarraitua egitea Gutunak berrikusi eta kontrolatu behar direla dioen puntu guztietan; horretarako, hezkuntza maila guztietako ikasle eta irakasleen gaitasun eta erabilerei buruzko emaitzak aurkeztu behar dira.
- Gizarteari hezkuntza eremuan galegoa sustatzeko beharrari eta komenigarritasunari buruzko mezuak bidaltzea.
- Aurrekoetako edozein ekintza garatzea, irizpide pedagogikoetan oinarrituta eta ez politikoetan.
- 9. artikuluari (Justizia) dagokionez, ez epaitegiek, ez auzitegiek ez diete galdetzen alderdiei prozeduraren hasieran zer hizkuntzatan nahi duten jarduketak garatzea.
  - Jarduketak galegoz egitea espresuki eskatzen duen alderdi interesdunaren eskaerari ez zaio jaramonik egiten. Epailtzako, Fiskaltzako eta gainerako funtzionarioen kidegoko bakoitzaren sentsibilitate eta borondatearen mende geratzen da galego hiztunen hizkuntza eskubideekiko errespetua epaitegietan. Hori dela eta, behin eta berriz urratzen dira galego hiztunen eskubideak Justizia Administrazioaren aurreko agerpenetan.
  - Espainiako estatuan indarrean den legediak Justizia Administrazioan Gutuneko hizkuntza eskubideak bermatzea eragozten du, berdintasun materialaren izenean. Galegoaren erabileraren aldeko estatuko araudi txikiak ez du aurrekontu mailako hornidurarik, betetzen dela ziurtatzeko jarraipeneko neurririk eta kontrolatzeko neurririk. Berdintasun formal eta teorikoaren planoan geratzen da.
  - Berdintasun materiala bermatzeko, giza baliabideak eta baliabide materialak behar dira, zereginak galegoz egiteko, bereziki Justizia Administrazioan esku hartzen duten eragileen esku jarrita galegoko aplikazio informatiko eta tresna teknologikoak.
  - Galizian bizi diren herritarrei galegoz egindako prozesu judiziala izateko eskubidea urratzen zaie eta, eskubide hori aitortzen zaienean, bidegabeko atzerapenak sortzen dira.
  - Onartezina da, bidegabekia delako, funtzioak galegoz egitea erabakitzen duen funtzionarioak laneko karga bikoiztuta izatea, tresna egokirik eta galegoz eguneratutako legedirik ez duelako.
  - Onartezina da galegoaren marjinazioa Justizia Administrazioaren eremuan, hizkuntza hori desagerrarazten laguntzen baitu horrek. Horregatik, eremu horretan (Gutunaren 9. artikulua), honako neurri hauek urgentetzat hartzen dira:
    - Minerva aplikazioa galegoz. Galiziako Xunta Espainiako Konstituzioaren 9.2 artikulua urratzen ari da, desberdintasuna sortzen baitu galego hiztunen kalterako.

- Onlineko legediaren basea sortzea, eguneratua eta finkatua, galegoz, operadore juridiko guztientzat irisgarria (epaileak, abokatuak, Administrazio letratuak, funtzionarioak eta abar).
  - Oinarrizko eta funtsezko testuak galegoz banatzea epaitegi guztietan.
  - Auzipetze Zibilaren Legeko 142. artikulua eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 231. artikulua aldatzea alderdiek erabaki dezaten zer hizkuntzatan egin behar den prozesua.
- 10. artikuluari dagokionez, Estatuko Administrazio periferikoak Galizian ez du organo gehienetan ohikoena den dokumentazioa galegoz. Barne sustapeneko prozesuak edo sarbideko probak ere ez dute bermatzen bertako langileek galegoaren ezagutza ziurtatzerik. Laguntza publikoak ukatu nahi izateko saiakera nabarmenak ere izan dira espedienteko dokumenturen bat galegoz zegoelako; ekintza hori polemika publikoaren ondoren soilik zuzendu izan da.
    - Administrazio galegoek (autonomikoa eta tokikoak) galegoz idatziz aurkeztutako dokumentuekin eta izapidetzeekin lotutako konpromisoak betetzen dituzte. Galegozko ahozko arreta irregularragoa da administrazio guztietan.
    - Azkenaldian, Estatuko Administrazioak deialdietarako edo dokumentazio administratiboa argitaratzera behartzen duen plataforma elektronikoak ugaritu izanak eragin du Galiziako administrazioek dokumentazio administratibo hori guztia gaztelaniaz egin behar izatea (Europa mailako hedadura duten kontratuen argitalpena, diru-laguntzen datu-basea, aurrekontuen egonkortasunerako mekanismoak betetzeko plataforma...); horrek eragiten du kasu batzuetan hori bakarrik izatea dagoen bertsio bakarra.
    - Zuzenean Administrazioak kudeatutako zerbitzu publikoek galegozko arreta partziala dute, bai idatziz, bai ahoz, jardunbide hori zuzentzeko ekintza definiturik egon gabe. Zerbitzu publikoen kudeaketan pribatizatze dagoen prozesu gero eta ugariagoa dela eta (osasungintzakoak, sozialak, hezkuntzakoak), erabiltzaileen arreta ia guztiz gaztelaniaz egiten da, Administrazioak ez baitu zaintzen zerbitzuen kontratazioan Gutunaren konpromisoak bermatzea.
  - Galiziako errealitatea neurri handian Gutunean zehaztutakoarekiko ere desberdina da komunikabideei erreparatuz gero (11. artikulua); izan ere, dagokion hizkuntzan «gutxienez telebista kate bat eta irratietxe bat» egotea soilik betetzen du normaltasunez. Ez da hala gertatzen «eskualdeko hizkuntzetan edo gutxiengoaren hizkuntzan prentsa organo bat gutxienez sustatzea edo sortzea ahalbidetzea eta mantentzea» bermatzeari dagokionez, eta murrizketen politikak arrisku larrian jartzen dute galegozko «ikus-entzunezkoen ekoizpenei finantza arloko laguntza». Era berean, praktikan, ez dago galegoa erabiltzen duten kazetarien eta komunikabideetarako gainerako langileen prestakuntza babesteko apusturik, Estatuak egiteko konpromisoa hartu badu ere. Adierazitako arrazoiak direla eta, 11. artikuluari dagokionez:
    - Erakunde mailako publizitate legean aurrera egin behar da, noski, galegoaren garrantzia kontuan har dezan komunikazio sisteman eta lehentasuna eman diezaion gaztelaniaren aurretik.
    - Funtsezkoa da lege hori gardena eta zuzena izatea eta galegozko komunikabideek gaztelaniazkoen baldintza berdinetan aurkeztu ahal izatea. horrek deialdiek ezarritako oztopo zentzugabeak haustea dakar, inprimatutako edizioa izateko edo bost langile izateko betebeharra, esaterako.
    - Gutunaren interpretazio eguneratua egiteko, 11. artikuluan, kontuan izan behar da komunikabideen errealitate berria kontuan hartu behar dela eta komunikabide digitalei eta sare sozialei buruzko atala sartu behar dela. Funtsezkoa da ulertzea galegoa orain komunikazioan hizkuntza gisa bizi bada, hizkuntza horretan dauden komunikabide digitalen aukera zabalari esker dela.

- 12. artikuluar dagokionez (Jarduerak eta zerbitzu kulturalak), esan behar da Galizian lurralde barruan nahiz kanpoan hizkuntza eta kultura galegoa babesteaz, sustatzeaz eta hedatzeaz arduratzen diren erakunde batzuk daudela. Bestalde, ezaugarri soziodemografiko galegoak kontuan hartuta, galegozko sustapen kulturala nahiko handia da. Hala ere, krisi ekonomikoan zehar gertatutako politika kulturaletako inbertsio publikoa jaitsi izanak sektorean zuzeneko eragina izan duela ikus daiteke, oraindik ez da berreskuratu eta Gutunean sinatutako konpromisoak betetzeko Administrazioaren gaitasunari eragin dio.
  - Zinema da globalizazio prozesuak eta teknologia berriak sartzek eragin gehien izan duen eremuetako bat. Ikus-entzunezko konpainia handiek merkatuko dinamikak markatzen dituzten testuinguruan, ingelesa ez den beste hizkuntza batzuetan egindako ikus-entzunezkoen banaketarako zailtasun handiak daude eta arrisku larriak dago hizkuntza aniztasuna. Testuinguru horretan, zineman orain arte dagoena baino galegoaren aldeko politika kultural erabakigarriagoa behar da, galegozko ekoizpena ez baita heren batera iristen. Gainera, azpigituluak egitean gabezia dagoela ikus daiteke beste hizkuntzetatik galegora eta galegotik beste hizkuntzetara. Hain zuzen ere, zinema galegoan azpigituluak funtsean tokiko ekimenetatik sustatzen dira.
  - Kulturarako proiektu estrategiko integrala egin behar da, hizkuntza aniztasuna ardatz nagusietako bat izan dadin, digitalizazioarekin eta globalizazioarekin kulturaren eskaera berriak oinarri hartuta funtsezko erronketako bat bezala.
- 13. artikuluar dagokionez (Bizitza ekonomikoa eta sozial), honako alderdi hauek aipatu behar dira:
  - Azken urteetan, Galiziako banku sistemak goitik beherako eraldaketak izan ditu, erakunde batzuk desagertu egin dira, beste batzuek bat egin dute eta kudeaketa moduetan teknologia berriak sartu dira. Egoera horiek eragin kaltegarria dute galegoa erabiltzeari dagokionez, bereziki idatziz eta webgune edo kutxazain bidezko kudeaketan.
  - Galiziako egitura industrial gehiena enpresa txiki eta ertainek osatzen dute, eta horiek askotan laneko eta kontularitzako aholkularitza zerbitzuak behar dituzte. Galizian zaila da dokumentazioa galegoz emango duten bitarteko erakundeak topatzea, askotan ez dutelako kudeaketa programen aukerarik (esaterako, nominak).
  - Notarioek ez diete bezeroei galdetzen zer hizkuntzatan egin nahi dituzten izapidetak. Bezeroek galegoz idaztea eskatzen badute, izapidetzean atzerapenak gertatzen dira. Arreta, ia osorik, gaztelaniaz egiten da.
  - Galiziako osasun arloan, galegoz arreta jasotzeko zailtasunak daude, bereziki ospitaleetan eta arlo batzuetan beste batzuetan baino gehiago, profesionalen borondatearen mende geratzen baita aukera. Profesional askok diote galegoz idazteko nahikoa gaitasunik ez dutela, baina ez da neurririk hartzen profesional horiek guztiek galegoz lan egin ahal izateko.
  - Pazientearen eta osasun sistemaren arteko lotura gisa sistema farmazeutikoak duen garrantzia hartuta, testuinguru jakin batzuetan pertsonen arreta galegoz emateko ere arazoak daudela nabarmentzen da.
  - Ezinbestekoak dira segurtasunaren eremuko jarduerak, eremu batzuetan ez baitaude eskuragarri segurtasun neurriak galegoz.
  - Esandako guztia kontuan hartuta, ezinbestekoa da:
    - *Plan de Dinamización da Lingua Galega no Tecido Económico 2016-2020* delakoan jasotako neurriak urgentziaz aplikatzea, planaren arrakasta maila adieraziko duen ebaluazioarekin batera.



- Osasun sisteman esku hartze erabakigarria (farmazeutikoa barne), galegoz ahoz nahiz idatziz lehentasunezko arreta ematea helburu duten jarduerekin, profesionali egin ahal izateko beharrezko gaitasunak eta motibazioa emanda.
- Segurtasun arloko materiala galegoz enpresen, langileen, kontsumitzaileen eta herritarren esku jartzeko beharrek neurriak hartzea.
- Tokiko eremuan Normalizazio Linguistikoko Zerbitzuak indartzea, sektore ekonomikoan eta gizarte zerbitzuetan dinamizazio linguistikoa lanean jarraitzeko.

## LEONERA GAZTELA ETA LEONEN

### (Jose Ignacio Suarez Garcia)

- Leonerak 2007ko Autonomia Estatutuan aitortza garrantzitsua duen arren, Gaztela eta Leongo instituzioek ez dute hizkuntza babesteko neurririk hartu, eta ez inolako legerik eman kontserbatu, erabili eta sustatzeko.
- Adituen Batzordearen IV. txostenak agintari eskumendunek leonera ez dutela batere sustatzen azpimarratzen du, eta, gainera, deitoratzen du Gaztelan eta Leonek, ezta itunaren aplikazioaren azken bermatzailea den Espainiako Estatuak, ez dutela hiru urtean behin eman beharrek informaziorik ematen Gutunaren betetze mailaren balorazioa egin ahal izateko. Europako Kontseiluak berriro ere gonbita egin du neurri zehatz eta praktikoa erabakitzeko leonera bizitza publikoan erabiltzea sustatzeko, baita erkide autonomoko ikasketa planetan sartzeko ere.
- Esandakoan oinarrituta, leonera babesteko premiazko proposamenak eta lehentasunak honako hauek dira:
  - Gaztela eta Leongo Autonomia Estatutuaren 5.2 eta 5.3 artikuluen lege garapena, Gutunaren 7. Artikuluak ezartzen dituen helburu eta printzipioekin bat eginda, leonerak eta galegoak tratamendu normatibo eta praktikoa berbera izan dezaten, betiere bi hizkuntzek Erkidego Autonomoan izan dituzten berezitasun soziolinguistikoei erreparatuta.
  - Organo administratibo autonomiko bat sortzea, leonera eta galegoa babesteko eta sustatzeko lanak egiteko, bi hizkuntzen defentsa politika koordinatua, koherentea, eraginkorra eta jarraitua finkatzeko.
  - Leonera sustatzea hizkuntzaren aldaerak errespetatuz, eta hiztun patrimonialak eta kontserbatzen den lekuetako hiztunak inplikatur hizkuntza berreskuratzeko zereginetan, hizkuntza ondarearen aitortza, zabalkunde, errealizazio eta kontzientziazio kanpainak eginez, leoneraren hiztunen eta hizkuntza hori ondareztat duten beste eskualde batzuen arteko harreman kulturala bultzatuz, bai Gaztela eta Leongo muga administratiboetatik kanpo badaude ere.
  - Leonera Gaztela eta Leongo hezkuntza sisteman sartzea, lehentasunezko izaerarekin oraindik kontserbatzen den eskualdeetan, eta eskari sozialaren arabera gainerako eskualdeetan. Edonola ere, leonera ikasi beharko litzateke haur hezkuntzan, lehen hezkuntzan, bigarren hezkuntzan eta batxilergoan.
  - Toponimia autoktonoa berreskuratzea, lehenik eta behin, toponimo tradizional handien eta txikien inbentarioa eginez, ondoren, nomenklatura geografikoetan eta errotulazioan jartzeko.
  - Kultur politikan, leoneraz sortutako ekoizpen kulturala eta literarioa babestea; Erkidego Autonomoaren barruan leoneraren ikaskuntza eta berreskurapena sustatzeko lanetan diharduten erakundeei laguntzea; komunikabide sozialetan hizkuntzaren presentzia sustatzea eta leonerari buruzko azterketa eta ikerketak bultzatzea.

## PORTUGESA EXTREMADURAN

### (Eduardo Naharro Macias Machado)

- Herritarren sentsibilizazioa eta kontzientziakzioa portugesarren balio linguistikoaz eta kulturalaz. Lan horrek bere berezitasuna aberastasun moduan onartzen duen gizarte baten sorreran aurrera egiteko balio behar du.
- Portuges oliventinoaren datu banku bat sortzea, bitarteko teknologikoak erabiliz.
- Portuges oliventinoaren balorizazioa, helburu didaktiko, hezitzaile eta kulturalekin (elementu interpretatiboak, herri ipuinen argitalpenak, belaunaldi arteko ekintzak zaharrek eta eskolekin, literatur sariak, etab.).
- Beharrezkoa da portugesarren Plan Estrategiko bat bultzatzea, benetako elebitasunerantz joateko, esparru guztietan (eskolak, herritarrak, instituzioak, etab.). Onena litzateke erakunde eskumendunak kontzientziatzea Olivenzan portugez hizkuntza ez dela hizkuntza atzerritar bat, baizik eta ongi dokumentatutako presentzia historikoa duen hizkuntza familiarra; hau da, plan berezi bat behar da Olivenzako hezkuntza komunitatearentzat, herritarrentzako beste Plan batekin batera. Plana progresiboa izan behar da. Martxan jartzeko, erakusten den ikastetxe guztietan ikasgai ebaluagarri moduan hartzeko aukera hartu behar da kontuan, maila bereko beste ikasgai batek astean duen ordu kopuru berarekin.
- Alem Guadianak kultur elkarteak, gainera, ondoko Elvas herriko ikasleekin ikasturte oso batean elkartrukea egiteko aukera aztertzea proposatzen du, ikaslearen eskola bizitzari eraginez, lehen hezkuntza amaitu eta bigarren hezkuntzan diharduenean. Horrek balioko luke alderdi linguistikoak indartzeko zein testuinguru kultural, historiko eta egunerokoan murgiltzeko, senideen eta auzokoek partekatzen dituzten lotura afektiboak zimendatuz. Irakasleentzat ere, ezagutzak aberasteko neurri egokia litzateke.
- Gure esperientzian eta orain arte egindako ekintzen emaitza positiboetan oinarrituta, Alem Guadianak solaskide moduan eskaintzen du bere burua Guadianaren bi aldeetako instituzioen artean behar diren gesioak egiteko.
- Horrez gain, baloratzen dugu Olivenzako Udalak, Universidad Popularreko Aula de Língua e Cultura Portuguesaren bitartez, hezkuntza komunitateari laguntzea kultur jarduerak antolatuz, lusofoniaren esparruan testuinguru oliventinora hurbiltzeko.
- Herritarrei dagokienez, Udalak eta unibertsitate Popularrek funtsezko rola jokatu behar dute derrigorrezko irakaskuntzan sartu ezin diren pertsona guztiei portugesa erakusteko.
- Além Guadiana Kultur Elkarteak aitortzen du instituzioek ekintzak eta jarduera egin zituztela, baina uste du ez direla nahikoa. Horregatik, bere iritziz, Gutunaren 7. artikulua ez da betetzen ari.

## VALENTZIERA MURTZIAN

### (Antoni Mas i Miralles)

Cañada de Trigoko (Yecla) eskola unitarioan lehen hezkuntzan diharduten 9 ikasleek ez dute valentziera ikasten. Halere, helburua lortzeko, gestioak egiten jarraitzen dute Murtziako agintariek.

Irakaskuntza araututik kanpo, Yeclako Unibertsitate Popularrak gaur egun valentzierako bi ikastaro eskaintzen ditu (B2 eta C2), herritar guztientzat. Ikastaroak Acadèmia Valenciana de la Llengua finantzatzen ditu, Yeclako Udalarekin egindako hitzarmen baten bitartez.

Acadèmiak liburuxka bat argitaratu du 2017an, Carxe inguruko toponimia guztia jasotzen duena.

Nabarmendu behar dira Anxo Navarro Sanchezek egindako gestioak, argitalpenak eginez edo gobernu autonomikoari proposamenak eginez Carxe inguruan valentzieraren deklarazioa kontuan hartzeko, Kultur Intereseko Ondasun immaterialtzat hartzeko eta hizkuntza hori Murtziako Estatutuaren testuan sartzeko.

Hizkuntza bera partekatzen duten erkidegoen arteko mugaz gaindiko erantzukizunei esker, Gutunak defenditzen duen bezala, Valentziako Generalitateak, 65/2016 Aginduaren, urriaren 18koaren, bidez, lehendabizikoz sartu du testu juridiko batean Carxe izena eta valentziera sustatzeko diru laguntzak jasotzeko aukera.

Agindu horretan oinarrituta, Valentziako Generalitateak valentzieraz egindako hainbat jarduera eta kontzertu finantzatu ditu 2017an.

Egoera horretatik abiatuta, neurri hauek gomendatzen dira:

- Carxeko ikasleei valentziera ikasteko eskaini.
- Yeclako Udalaren eta Acadèmia Valenciana de la Llenguaren arteko lankidetzak mantentzen jarraitu valentzierako ikastaroak eskaintzeko.
- Carxeko beste bi Udalei –Jumilla eta Abanilla– proposatu, Acadèmia Valenciana de la Llenguarekin lankidetzan, udalerririk horietan valentzierako ikastaroak eskaini ahal izateko.
- Murtziako agintari autonomikoei Carxeko valentziera Kultur Intereseko Ondasun immaterial deklaratu dezaten, horretarako baliabide juridikoak baitituzte.
- Halaber, Autonomia Estatuaren testuan sar dezatela eskualdearen zati batean hitz egiten den valentzieraren aitortza.
- Murtziako eta Valentziako gobernu autonomikoen harremanak ezar ditzatela Carxen valentziera sustatzeko laguntzak eta subentzioak mantentzeko.

## **VALENTZIERA VALENTZIA HERRIALDEA**

### **(Adria Marti-Badia, Lluis B. Polanco Roig)**

- Eskualde Hizkuntzen edo Hizkuntza Gutxituen Europako Gutunaren betetze maila Valentziako Autonomia Erkidegoan hizkuntz eskubideak eta erabilera arautzen dituen esparru konstituzionalean eta estatutarioan ebaluatu behar da, zeinak ia erabateko eleankartasuna sustatzen duen Estatuaren erakunde zentraleran (komunikabideak eta abar barne), eta oztopo handiak jartzen dizkion hizkuntza eskubideen aitortza hutsa gairatzeari, nolabait eskubide soilik pertsonaltzat jotz, lurraldearen barruan berezko hizkuntza gutxituari dagokionez.
- Eredu horren interpretazio eta ezarpen murriztaileak (sistematikoagoa Estatuaren aldetik eta oso ohikoa hainbat gobernu autonomikoren aldetik) Gutunaren artikuluen zati bat betetzea galarazi eta oztopatzen jarraitzeaz gain, estatu eredu integratzaile, eleanitz eta kulturantz bat finkatzea galarazten du (maila sinbolikoan zein benetako erabileretan), euren lurraldeetan hizkuntza gutxituei lehentasunezko estatusa aitortzea oztopatuz, berreskuratzeko dinamika batzuk segurtatzeari dagokionez (historikoki ezarri diren errepresio dinamikoen aurrean), erabilera eta ezagutza oro har sendotzeko eta, epe ertain eta luzera, hizkuntz komunitate bakoitza mantentzeko eta hedatzeko.
- Berezko hizkuntzaren lurraldetasun irmorik ez dagoenez (eta ezagutza orokortzeko politika sendo eta integraturik ez dagoenez), oso egoera prekario bat finkatu da (ordezte linguistikoaren maila kezagarriak, biztanle berrien integrazio linguistikoaren falta, ahozko eta idatzizko ezagutzen arteko desoreka larria –hartaileei dagokienez eta, batez ere, hiztun aktiboei dagokienez–, ez dago berezko hizkuntzaren inguruko zerbitzurik eta erabiltzeko funtsezko esparrurik, etab.); ondorioz, gaur egungo koordinatuetan, guztiz zalantzan jartzen du hizkuntza mantentzea bera eta etorkizunean hizkuntz komunitatea finkatzea.
- Gutuna betetzeari dagokionez, bi etapa bereizi behar dira 2015ean Gobernu autonomikoaren eta udal askoren osakeraren aldaketaren arabera. Lehen etapan, Adituen Batzordearen azken txostenean jada oharatzen zenez (2010-2013 aldiari dagokio), hainbat urraketa edo betetze maila partzial hauteman

daitezke; gaur egungo etapan badirudi betetze partzial gehiago ikusten direla, eta aurreikusten da epe ertainera betetze totalak eta partzialak gehiago izango direla.

- 8. artikuluari dagokionez, lehen etapan behin eta berriz egin diren urraketen artean (2014-2015), aipa daiteke Valentziako Gobernuaren 127/2012 Dekretuaren, abuztuaren 3koaren, aplikazioa, zeinean unibertsitatez kanpoko hezkuntza hirueleduna arautzen den; horrekin, hezkuntza sisteman atzerriko hizkuntza bat (edo gehiago) sartu nahi zen, bertako hizkuntzaren kaltetan, bere ezagutza ez baita inola ere bermatzen gaur egun hezkuntza sisteman duen presentziarekin, azken inkesta eta errolda linguistikoek erakutsi dutenez. Salatutako urraketa areagotuz, kasu askotan, ikastetxe publikoetan komunikazio hizkuntzatzat valentziera zuten hezkuntza unitateak (taldeak) desagertu egin dira.
  - Azkenaldiko etapan, aldiz, 9/2017 Dekretua, urtarrilaren 27koa, onartu izana azpimarratu behar da, Valentziako hezkuntza eredu linguistikoaren ezarpena eta unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako aplikazioa arautzen duena. Arauaren arabera, Hezkuntza Programa Eleanitz Dinamiko bakar bat ezartzen da (PEPD), sei maila posiblerekin (maila zenbat eta altuagoa izan orduan eta eleanitzagoa), ikastetxe bakoitzeko Eskola Kontseiluak aukeratuta. Bi maila altuenek (1 Aurreratua eta 2 Aurreratua) bermatzen dute ikasleek bi hizkuntza ofizialak modu orekatuan ikastea (gaztelania eta valentziera), eta ingelesa maila onargarrian ikastea. Horrenbestez, ikastetxeek maila aurreratuetan ibiltzea erabakitzen badute, ikasle eleanitzen kopurua handiagoa izango da aurreko Dekretuarekin baino, irakaskuntza eleanitzak valentzierazko irakaskuntzari kalterik egin gabe (eta gaztelaniaren ezagutza kaltetu gabe ere). Halere, Valentziako Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak (TSJCV) baliogabetu egin du prebentiboki aipatu 9/2017 Dekretuaren aplikazioa, eta, ondorioz, oztopatu egin du datorren ikasturtean (2017/18) Dekretua aplikatzea.
  - Hezkuntza sistema araututik kanpo bertako hizkuntzaren irakaskuntza antolatzeko urrats garrantzitsua izan da ezagutzaren titulu ofizialak (Junta Qualificadora de Coneixements de València erakundeak ematen ditu) Europako erreferentziazko esparru komuneko mailekin parekatzea, eta valentziera-katalan esparru linguistikoaren gainerako titulazioekin homologatzea (Conselleria d'Educació, Investigació, Cultura i Esportaren 7/2017 Agindua, martxoaren 2koa).
- Justiziaren esparruan (9 artikulua), berezko hizkuntza duten gainerako erkidego autonomoetan gertatzen den bezala, kontraesanak jarraitzen du Gutunaren xedapenen (9.1.a.i, b.i, c.i artikulua) eta Espainiako legediaren artean (zehazki, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 231 artikulua), eta horrek galarazi egiten du prozedura judicial bat hizkuntza gutxituan garatzea Aldeetako batek hala nahi badu, Adituen Batzordearen IV. Txostenak salatzen zuen bezala).
  - Ez dago behar besteko daturik Justizia Administrazioako langileen zein operadore judizialen (epaileak eta magistratuak, letraduak, abokatuak, prokuradoreak, etab.) hizkuntza propioaren ezagutzari dagokionez (ahoz eta idatziz, bereziki erregistro juridikoetan), eta ez dago datu zehatzik Justizia Administrazioaren hizkuntzaren benetako erabilerari buruz, edo daudenak hutsalak edo ezdeusak dira.
  - Formalki erakunde judizialen aurrean eta horien aldetik valentzieraz adierazteko eta komunikatzeko eskubideak errespetatzen direla ematen duen arren (betiere alde batek eskatuta, Botere Judizialaren Lege Organikoak eta legearen gainerako garapenak gaztelaniaren erabilera inposatzen baitute lehenetsunez), begien bistakoa da herritarrak ez erabiltzera (edo ez eskatzera) bultzatzeko elementu indartsuak daudela: indefentsioa hautematen da, operadore juridikoek ez dute zuzenean arreta ematen edo ez dute horretarako jarrerarik, prozedurak berez luzatzen dira (kasu batzuetan zuzeneko mehatxu moduan salatu dira), bultzatzen diren ohitura diglosikoak ahaztu gabe.
  - Gaur egungo administrazio autonomikoak, Justizia Administrazioaren kudeaketan eskumenak transferituta dituen heinean, proiektu berriak abiarazi ditu (orain arte minimoak ziren) funtzionario judizialak gehiago prestatzeko eta aholkularitza linguistikoa emateko edo etorkizuneko juristak prestatzeko eta sensibilizatzeko. Halere, Espainiako botere judizialaren antolamendu zentralizatu eta hierarkizatuaren ondorioz, ahalmen urria dauka bermatzeko operadore judizial nagusiek (bereziki, Judikatura) beren postuak bertako hizkuntzaren gaineko behar besteko gaitasunarekin

bete ditzaten (prestakuntza eta hautaketa egokien bitartez), administratuen bi hizkuntza ofizialei dagokienez.

- Agintari administratiboen eta zerbitzu publikoen erabilera linguistikoei dagokienez (10. artikulua), alde handiak ikusten dira Erkidego Autonomoko administrazioen artean, eta are horien barruan ere, zerbitzu mota eta eremu geografiko desberdinen arabera.
  - Erkidego Autonomoan Estatuko Administrazioak (101 artikulua) pilatzen ditu gorabeherarik gehien hizkuntz urraketengatik, eta horiek hutsune garrantzitsuak erakusten dituzte biztanleen beharrei dagokienez, indarreko legediari dagokionez (Autonomia Estatutua eta Valentzieraren Erabilera eta irakaskuntza Legea) eta, finean, Gutunean hartutako konpromisoei dagokienez. Ildo horretan, erreklamazio ugarien errepikapena eta larritasunaren ondorioz, zeinak jasota dauden Síndic de Greugesek Valentziako Gorteetara igorritako urteko txostenetan (Arartekoa), hainbat GKEK dokumentatuta (Escola Valenciana, Plataforma per a Llengua, ELEN, etc.), eta komunikabideetan zabal publizitatuta (hainbat kasutan ondorio prozesalekin), Administrazio autonomikoak protesta egin eta esku hartu behar izan du Estatuak Erkidego Autonomoan dituen ordezkarien aurrean.
  - Horrek ez du kentzen Administrazio hori duela zenbait urte hasi zela jendearen arretarako funtzionario zibilak lurraldearen bertako hizkuntzan prestatzeko jarduera partzialak egiten (eta, neurri txikiagoan, segurtasun gorputzetan), eta, irregularki bada ere, herritarrei inprimakiak edo webguneak ematen zaizkiela hizkuntza koofizialean, nahiz eta askotan bertako hizkuntzaren presentzia oso partziala den (goiburuak, webgune ofizialetako hasierako pantailak, etab.). Berdin esan behar da Estatuaren Administrazio zentralak Internet bidez eskaintzen dituen zenbait zerbitzuri buruz (ministerioak edo agenzia estatalak).
  - Administrazio autonomikoari dagokionez (10.2 artikulua), erregularitasun handiagoa egiaztatzen da bertako hizkuntzaren presentzian (gaztelaniarekin batera) herritarrei zuzendutako inprimakietan eta funtzionarioen hizkuntza prestakuntzan eta jendearentzako arretan, nahiz eta hutsune eta desberdintasun handiak hautematen diren departamentuen eta eremu geografikoen arabera. Egin berri den *Enquesta 2016. Ús del valencià en l'Administració de la Generalitat* inkestak erakusten duenez, bertako hizkuntza Valentziako administrazioaren hizkuntza orokorra eta ohikoa izatetik urrun dago, Gutunak iradokitzen duen moduan (10.2.a artikulua).
  - Aurreko desorekak zuzentzeko helburuarekin, eta Administrazio autonomikoaren erabileran bertako hizkuntza lan hizkuntza moduan orokortzea bermatzeko (arlotan askotan helburua oso urrun dago oraindik), eta kasu guztietan herritarrentzako zerbitzua bi hizkuntza ofizialetan eskaintzen dela bermatzeko (Gutunaren 10.2.a artikulua betez), Gobernu autonomikoak 61/2017 Dekretua onartu berri du, hizkuntza ofizialen erabilera instituzionalak eta administratiboak arautzen dituen, herritarrei aukera emateko funtzionarioekin bi hizkuntzak erabiltzeko (Dekretuaren 16 artikulua) eta kargu instituzionalek erabiltzea bultzatzeko. Halaber, funtzionario autonomiko guztiek bi hizkuntza ofizialak jakiteko araudian prestatzen ari dira, Valentziako Erkidegoaren okupazio publikoaren Lege baten bitartez. Funtzionarioen artean hizkuntza jakiten eta erabiltzen laguntzeko, Gobernu autonomoak "Generalitateko Administraziooko langileei laguntasun linguistikoa emateko Plana" jarri du martxan, zeina 2017ko maiatzean aurkeztu zen.
  - Aurreko txostenean adierazten denez, ezaugarri desorekatu horien zati handi bat (instituzioen edo eremu geografikoen arabera), tokiko administrazioek ere nozitzen dituzte: hein handiagoan edo txikiagoan, bertako hizkuntza barne dokumentazioan eta udalbatzetan erabiltzen da, eta administratuei bidalitako edo haiengandik jasotako idatzietan edo inprimakietan (10.2.a, b, f artikulua). Aitzitik, oraingoz ez dago datu zehatz berririk eta ez da proposatu jarduera orokorrik egoera horiek hobetzeko. Toponimiari dagokionez, datuek baieztatzen dute 2014-2016 aldian 13 toponimoren valentzierazko forma berreskuratu zela, hau da, katalan hiztunen 395 udalerrietatik 327k dute izen ofiziala valentzieraz, 34 elebiduna dute eta 34 gaztelaniaz.
  - Aipamen berezia merezi dute administrazioek emandako edo bermatutako zerbitzu publikoek, bereziki osasunak (10.3.a artikulua), ez baitago langileen hizkuntz prestakuntzarik (askotan ezta

gutxienekoa ere), eta, administratuen errealitate eleanitzari buruzko sentsibilizaziorik ez dagoenez, gertakari ugari jazo dira (arreta medikorik ez egotea, hitzezko tratu txarrak, etab.), hainbat erakundek eta komunikabideak salatu dutenez.

- Administrazioetan detektatutako gabezia gehienen edo zati handi baten atzean dago funtzionario publikoak erreklutatze orduan (edo daudenak prestatzeko) ez dagoela politika definitu eta orokorrik bermatzeko lurraldeko bi hizkuntza ofizialak ongi eta modu berdinean ezagutzen direla “10.4.b artikulua), gabezia horren arrazoiak izanik lurralde autonomoan ez dagoela borondate politiko zehatzik eta estatu mailan legezko trabak jartzen direla edo lan arloko beste kausa batzuk. Arazo horien aurrean, hainbat neurri azaldu dira, aringarriak baino ez direnak: itzulpenetan espezializatutako software bat garatu da (zehazki SALT programa), baina hauteman da erabilera gehiegizkoa eta ez oso egokia egiten dela; itzulpen eta zuzenketa talde egokiak garatu dira modu hipertrofikoan, eta horien jarduera eraginkorra izanik ere, askotan aipatutako oinarriko gabeziak makillatzeko erabiltzen dira (10.4.a artikulua).
- Komunikabideei dagokienez (11 artikulua), orain indarrean dago Valentziako lurralde osoan bertako hizkuntzan egindako irri eta telebista emanaldien gabezia, Adituen Batzordearen aurreko IV. Txostenak salatzen duenez (2010-2013) (11.1.a.i artikulua), Radiotelevisión Valenciana SAU erakundeak kudeatzen zituen irri eta telebista kate publiko guztiak itxi eta gero 2013ko azaroa) (4/2013 Legea). Hizkuntzaren presentziaren falta horrek eragindako kaltea sekulakoa da, bai erreferen kultural partekaturik ez dagoelako, bai hiztunek gaitasunak galtzen dituztelako hizkuntzaren eredu kultu publikoetan, eta valentziar ikus-entzunezkoen sektorearen zati handi bat desagertu delako.
  - Horri gehitu behar zaio hizkuntza berean beste kanal batzuk (hainbat gobernu autonomikorenak) hartu ahal izatea erabat galarazten dela (Gutunaren 7.1.e eta 14.b artikulua guztiz urratuz). Emaizta moduan, 2011ko otsailean, Valentziako lurraldean desagertu egin ziren Kataluniako telebista publikoaren 4 kanalen emanaldiak (TV3, C33, 3/24 eta 300) eta, 2014 urtarrilean, Catalunya Ràdio irri kanalarenak, hurrenez hurren 26 eta 27 urte martxan egon ondoren, herri ekimenaren ondorioz instalatutako errepikagailuen bitartez entzuten zirenak. Valentziako Gortek «Akordio Printzipio» bat onartu zuten 2013ko ekainean, Valentziako eta Kataluniako elkartrukea ahalbidetzeko (baita ere Balearretakoak), baina oraingoz hori etenda dago (Valentzian emisiorik ez dagoelako eta «multiplex digital» berri bat ematea falta delako).
  - Hala eta guztiz ere, valentzierazko komunikabide publikoak izateko eskari sozial handiak 5/2016 Lege berri bat onartzea eragin du, Esparru Autonomikoko Irratidifusio eta Telebista Zerbitzu Publiko ari buruz, Valentziar Komunikabideen Korporazio berri bat (CVMC) sortzea ahalbidetzen duena, eta ezartzen du «valentziera izango dela Valentziako Generalitatearen mendeko komunikabide publikoen komunikazio hizkuntza» (5.n artikulua). Kontsultatutako iturrien arabera, legearen gaur egungo garapenak eta langileak eta produktuak kontratatze ereduak bertako hizkuntzaren presentzia orokortuaren helburuak betetzen direla bermatu nahi dute, herritarren gehiengoaren nahiarekin bat eginda, inkesta guztiek diotenez. Horrekin guztiarekin, irri eta TB emanaldi berrien hasiera oraindik ez dago zehaztuta.
  - Oihartzun sozial txikiagoa duten udal edo eskualde mailako irri eta telebista kanalei dagokienez (11.1.b.i, c.i artikulua), aurreko egoera kaotikoa gorabehera (2010-2013 aldiko txostenean adierazi denez), bertako hizkuntzaren presentziaren betekizunak irregularrak direlarik (eskuarki oso urria edo ezer ez), 4/2017 Dekretu berria onartu da, zeinak Ikus-entzunezko Komunikazio Emaileen Zerbitzuak eta Erregistroa arautzen dituen, eta bertan bertako hizkuntzan emateko gutxieneko batzuk ezartzen dira (%70 valentziera hitz egiten den lekuetan), eta baimena emateko irizpide moduan ezartzen du hizkuntza horretan emandako orduen kopurua. Kanal pribatuen lizentziei dagokienez, 2016an 40 telebista kanal esleitu ziren lurralde osoan (2 Valentziako Erkidegoko esparruan, eta gainerakoak 20 lurralde barrutitan, horien artean Valentzia hiria, 2 kanalekin); irriari dagokionez, berriz, 2007an eta 2011n esleipenak egitea galarazi zuten irregulartasunen ondoren, 2017an irri lizentzia berriak esleitu ahal izango dira, 4/2017 Dekretuaren irizpide berrien arabera.

- Hizkuntzak komunikabideetan duen presentzia eta, ondorioz, lege baldintzak betetzen diren kontrolatzeko eta ikuskatzeko mekanismo autonomikorik ez dagoela esan beharra dago ez irrati eta TB kanal pribatuetan ez etorkizuneko kanal publikoetan. Ez dirudi lekuz kanpo dagoenik esatea etorkizuneko txostenetan aldizkako ebaluazio ofizial horiek aurreikusi beharko direla.
- Prentsa idatziari dagokionez, oraindik ere ez dago esparru orokorreko egunkaririk valentzieraz soilik (edo gehienbat). Astean edo hilean behin argitaratzen diren aldizkari inprimatu batzuek laguntza instituzionala jasotzen dute, diru laguntzen bidez (zabalkunde txikia edo aldakorra daukate), baita osorik edo partzialki bertako hizkuntzan diharduten egunkari digital batzuek (edo informazio orokorreko egunkari inprimatuen bertsio digitalak, baita eremu autonomikoko edo are estataleko kultur osagarriak edo eskualde mailakoak). Kasu batzuetan, bereziki kritikatu da valentzierazko bertsioen hizkuntza kalitate ezin txarragoa, batez ere edizio digitaletan. Pentsa idatziz sustatzeko laguntzen eraginkortasuna aldizka ebaluatzeko beharra aztertu beharko litzateke (kuantitatiboa eta kualitatiboa eta hainbat parametro sozialen arabera), etorkizuneko politikak birbideratu ahal izateko (bai maila autonomikoan bai Gutunari dagokionez).
- Lurraldearen irakurketa maila eskasaren (prentsari dagokionez eta oro har ere), gaur egungo prentsaren aldaketa sakonen eta hizkuntza idatziaren ezagutza urriaren ondorioz, sektoreari laguntzeko estrategia sendoak eta berritzaileak behar dira bertako hizkuntzan jarduteko, eta horiek ere etorkizunean beharbada ebaluatu egin beharko lirateke (baita Gutuna betetzeari dagokionez ere).
- 12 artikuluar buruz (Kultur jarduerak eta ekipamenduak), lehen etapan urraketak eta betetze maila partzialak ohikoak ziren, eta Europako Kontseiluari ez zitzaion informaziorik ematen, eta Gutunean jasotako konpromiso gehienak gobernuz kanpoko erakundeek bete zituzten —Escola Valenciana kasu— eta askotariko erakunde eta instituzioek —tartean egonik Universitat de València, Universitat d’Alacant, Universitat Jaume I, Acadèmia Valenciana de la Llengua eta hainbat udal—.
  - Bigaren etapan konpromiso zabalagoak lortu dira, batez ere hizkuntza politikan inbertsioak asko-asko igota (%97 gehiago Valentziako Generalitatearen 2015. eta 2016. Urteetako aurrekontuetan baino): 13,2 milioi euro Direcció General de Política Lingüística i Gestió del Multilingüismerentzat, eta hainbat partida daude lanak valentzierara itzuli eta argitaratzeko, edo itzulpen eta ikerketa terminologikoko zerbitzuetarako. Bizitza sozialean, ekonomikoan eta kontsumoan bertako hizkuntzaren erabilera sustatzeari dagokionez, Valentziako Gobernuak, besteak beste, hainbat neurri iragarri ditu “kalitate linguistikoaren zigilua” dute enpresei hobari fiskalak emateko; zigiluak hizkuntza ofizialen zein atzerrikoen erabilera baloratuko du.
- Bizitza ekonomikoan eta sozialean hizkuntz eskubideak urratzen jarraitzen da (13 artikulua), bai merkataritzaren edo zuzeneko kontsumoaren esparruan, bai konpainia estatalen edo nazioartekoaren telefono edo sareko zerbitzu berrietan, izan horiek pribatuak zein paraofizialak. GKE-ek (Escola Valenciana, Plataforma per la Llengua, ELEN, etab.) tarteka salatzen dute gertaera horien larritasuna eta maiztasuna, eta komunikabideetan oihartzun handia izan ohi dute. Ondorioz, ikusten da beharrezkoa dela Hizkuntza Normalizaziorako (edo Hizkuntza Berdintasunerako) Lege berri bat, kontuan hartuko duena azken hamarkadetakoa teknologiaren eta kontsumo ohituren bilakaera, eta eraginkortasunez babestuko duena bertako hizkuntzaren erabilera esparru zabalagoetan, erabiltzaileak babestuz, zigorrak erabiliz ere behar bada, eskubideen urraketatik, izan ere, egoera horiek ez daude aurreikusita indarrean dagoen Valentzieraren Erabilera eta Irakaskuntzaren 4/1983 Legean, azaroaren 23koan.
- Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da ahalegin handiak eta premiazkoak egiten jarraitzea, Gutunaren konpromisoak betetzeko, eta administrazioek azken garaiotan erabakitako neurriak ez daitezen arriskuan jarri edo negatiboki aldatu, administrazio publikoetako gobernuetan egon daitezkeen aldaketengatik.

[Ondoren, sinatzaileen izenak, lurralde desberdinetako LRoMak ordezkatzuz]

- Adria Mart-Badia
- Alba Nogueira Lopez
- Anchel Reyes
- Antoni Mas i Miralles
- Carlos Pulgar Garcia
- Carlos Xesus Varela Aenlle
- Eduardo Javier Ruiz Vieyetz
- Eduardo Machado
- Eva Pons
- F. Xavier Vila i Moreno
- Francesc Xavier Lamuela
- Francisco Moscoso
- Garbiñe Petriati
- Hector M. Silveiro Fernández
- Javier Giralt Latorre
- Joan Bernat
- Joan Melia
- Jose Ignacio Suarez Garcia
- Juan F. Gamella
- Lluís B. Polanco Roig
- Maria Verges Perez
- Tamara Flores
- Valentina Formoso
- Xaquín Loredo
- Xurxo Salgado

Santiago de Compostela, 2017ko ekainaren 30a



